

BURUNTZALDEA.2015EKO EUSKARA PLANGINTZAREN MEMORIA

HELBURU ESTRATEGIKOA: ONDORENGOETARATZEA

ESPARRUA	PROGRAMA	BALORAZIOA	AURREIKUSITAKO GASTUA	GASTU ERREALA	DESBIDERAKETA	JARRAIPENA
Familia	1. Familia bidezko transmisio plana: gurasogaiak sentsibilizatzea	Ona	7.500.	3.449	-4.051 Arrazoia: Materiala abenduan berrituko dugu.	Bai
	2. Familia bidezko transmisio plana: haur eskoletako gurasoak sentsibilizatzea	Balekoa	4.500	1.520	-2.980 Arrazoia: Irrati kuinak beste gai bati lotu zaizkio eta material berririk ez dugu behar izan	Bai
	3. Familia bidezko transmisio plana: ikastetxeekin elkarlanean garatzeko egitasmoa	Balekoa	6.194	11.842	+5.648 Arrazoia: eskualde izaera utzita, herri bakoitzak bere aldetik jo du.	Bai, baina
Irakaskuntza	4. Heziketa zikloetako ikastereduak hobetzeko planak.	Ona	10.500	10.815	+315	Bai
Euskalduntze-alfabetatzea	5. Euskaltegiekiko elkarlana sustatzea.	Kaskarra	0	3.516	+3.516 Arrazoia: Erreportaje bat, aurreikusi ez bezala, gai honi eskaini zaio	Bai

BURUNTZALDEA.2015EKO EUSKARA PLANGINTZAREN MEMORIA

HELBURU ESTRATEGIKOA: ERABILERA

ESPARRUA	PROGRAMA	BALORAZIOA	AURREIKUSITAKO GASTUA	GASTU ERREALA	DESBIDERAKETA	JARRAIPENA
Udalak	6. Kulturako ikastaroak euskalduntzeko egitasmoa	Balekoa	0	121	+121 Arrazoia: Herri batek aurreikusi gabeko gastu bat egin du	Bai
	7. Kiroldegietako ikastaroak euskalduntzeko egitasmoa	Ona	0	464	Arrazoia: Herri batzuek aurreikusi gabeko gastua egin dute.	Bai
	8. Administrazio elektronikoa euskalduntzea	Balekoa	0	0	0	Bai
	9. Subrogazio kasuetarako irizpideak eta protokoloa prestatzea	Ona	0	0	0	Bai
	10. Ikasturte hasieran, kultura ikastaroetako erabiltzaileentzako galdetegia	Balekoa	0	0	0	Bai
	11. Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren ezaugarriak aztertzea hizkuntza irizpideak definitzeko	Ona	0	0	0	Bai

BURUNTZALDEA.2015EKO EUSKARA PLANGINTZAREN MEMORIA

HELBURU ESTRATEGIKOA: ERABILERA

ESPARRUA	PROGRAMA	BALORAZIOA	AURREIKUSITAKO GASTUA	GASTU ERREALAK	DESBIDERAKETA	JARRAIPENA
Beste administrazioak	12. Errenta-aitorpenaren kanpainan eragitea	Ona	2.000	4.123	+2.123 Arrazoa:Publizitatea herri bakoitzaren esku geratu zen.	Bai
	13. Osasun zentroetako hizkuntza egoera	Kaskarra	3.000	0	-3.000 Ez da eragin	Bai
	14. Bake Epaitegietako hizkuntza egoera	kaskarra	0,00	0	-2.000 Ea da eragin	Bai
Informazio eta Komunikazio teknologiak (IKT)	15. Buruntzaldeko webgunea	Ona	8.023	7.892	-131	Bai
	16. Motxian Eby lehiaketa	Oraindik ezin jakin, lehiaketa abiatu berri delako	3.300	3.000	-300	Emaitzen arabera
Enpresa mundua	17. Euskara Merkataritzara: autoeskolak	Ona	11.000	8.563	-2.437 Arrazoa:Sari batzuk 400 eurotik beherakoak izan dira	Bai
	18. Lan-munduan eragitea	Balekoa	25.240	24.594	-646	Bai

BURUNTZALDEA.2015EKO EUSKARA PLANGINTZAREN MEMORIA

HELBURU ESTRATEGIKOA: ELIKADURA

ESPARRUA	PROGRAMA	BALORAZIOA	AURREIKUSITAKO GASTUA	GASTU ERREALAK	DESBIDERAKETA	JARRAIPENA
Kulturgintza	19. Euskarazko produktuen katalogoa	Ona	6.600	7.145	+545	Bai
	20. Gu ere bertsotan egitasmoa	Ona	53.000	58.576	+5.576 Arrazoiak: herri batzuetan aurreikusi baino talde gehiago sortu dira	Bai
Corpus plangintza	21. Apelliduak abizendu	Kaskarra	2.000	0	-2000 Ez da eragin	Bai
Besterik	22. Komunikazioa	Balekoa	0 Komunikazio gastuak egitasmo bakoitzari atxikitzen zaizkio	0	0	Bai
	23. Ardura politikoa	Balekoa	0	0	0	Bai, baina

ESPARRUA	PROGRAMA	EGINDAKOAREN EMAITZAK ETA EBALUAZIOA	KOMUNIKAZIO EKINTZA
Familia	1. Familia bidezko transmisio plana: gurasogaiak sensibilizatzea	Aurreikusitakoa bete egin dugu: hileroko banaketa, materiala berrinprimitzea eta komunikazio ekintza. Urte amaieran berri beharra izango dugu materiala 2016rako, baina gastua egin gabe dago, oraindik. 2016ko bidalketan Hazi Hezi gurasoentzako aldizkaria sartuko dugu bidalketan (Foru Aldundia eta HihHasiren arteko elkarlanaren ondorioz).	Erreportajea
	2. Familia bidezko transmisio plana: haur eskoletako gurasoak sensibilizatzea	Urtero bezala, herri bakoitza arduratu da herri bakoitzeko haur-eskolan gurasoei zuzendutako aholkuen diptikoa banatzea. Partzuergoarekin harremanetan jartzea izan da urte honetako lehentasuna, elkarlanean zerbait aurrera eraman ote daitekeen aztertzeke. Udara ondoren izan bada ere, harreman hori bideratu da eta lankidetzarako bi aldeetako asmoa berretsi da. Hori zehazteari dagokionean, berriz, egun hizkuntza-kudeaketa hobetzeko plana garatzen ari dira. Hala ere, gai hau Partzuergoko Euskara Batzordean aztertu da eta gurekin urte hasieran bilera bat egiteko proposamena mahai gainean dago.	
Familia	3. Familia bidezko transmisio plana: ikastetxeekin elkarlanean garatzeko egitasmoa	Aurreikusitakoa ez dugu bete: Programa berraztertu nahi genuen, baina ez diogu tarterik eman aurten ere. Ziurrenik, nondik jo ere ez dakigulako. Ondorioz, eskualde mailako izaera galtzen ari da.	

ESPARRUA	PROGRAMA	EGINDAKOAREN EMAITZAK ETA EBALUAZIOA	KOMUNIKAZIO EKINTZA
Irakaskuntza	4. Heziketa zikloetako ikastereduak hobetzeko planak.	Berritzeguneko bileretan parte hartzen jarraitu dugu. 2014-15 ikasturtean gai nagusia izan da lantokiko prestakuntza, eta Tolosaldeko eta Buruntzaldeko ikastetxeek gain, Bidasoa-Oarsoaldekoak, Donostialdekoak eta Urola-Kostakoak ere batzartu dira gurekin. Elkarkidetza honek balio izan du lantokiko prestakuntzaren egoera ezagutzeko. 2015-16an jarraituko dugu lanean. - Eremu honetan EMUNek Usurbilgo Lanbide Eskola eta Talleres Etxeberria lantegiarekin egindako proiektu pilotoa burutu zen. - 2015-16 ikasturtean, aurreko gaiaz gain, hezkuntza ez arautuan nola eragin hautatu da bigarren gaia, eta ikasturtearen lehengo hiruhilean hasi gara jorratzen datu bilketa bat eginez. - 2014-15 ikasturteko matrikulazio datuak bildu genituen konparatiba egin eta ikastetxeei aurkeztu Berritzegunean. - 2015eko otsailean Buruntzaldeko lanbide heziketako ikastetxeek hurrengo ikasturterako zuten B eta D ereduak zikloak, eta alboko eskualdeetakoek D ereduak zikloak biltzen zituen eskuorria diseinatu eta banatu genituen - Lanekik jarraitu du materialaren itzulpenekin, Usurbil, Hernani, Urnieta, Andoain eta Astigarraga udalen laguntzaz, besteak beste, eta lantokiko prestakuntza euskaraz egiteko gida modukoa hasi da lantzen ikasturte honetan.	2015eko martxoan, tokiko hedabideetan erreportajea argitaratu zen, euskaraz egiten diren lantokiko prestakuntzari buruz, ikastetxe, enpresa eta ikasleek egindako balorazioak
Euskalduntze-alfabetatzea	5. Euskaltegiekiko elkarlana sustatzea.	Urriaren 12-18ko astean erreportajea argitaratu da herri komunikabideetan, erabileraren ingurukoa, hau da, euskaltegian kokatu gabe, mintzalagun, zilegi eskola, mintzanet eta Banaizbagara elkartearen jardunari buruzkoa. Web gunean euskaltegiei buruzko informazioa eta ikastaro bilatzailea elikatu dute euskaltegiek.	Erreportajea herri-komunikabideetan

ESPARRUA	PROGRAMA	EGINDAKOAREN EMAITZAK ETA EBALUAZIOA	KOMUNIKAZIO EKINTZA
Udala	6. Kulturako ikastaroak euskalduntzeko egitasmoa	Azken urteotan ez dugu egitasmo bateraturik herri bakoitzaren egoera, erritmoa eta egitasmo honek duen lehentasuna desberdina delako. Horregatik, ikasturte hasieran eta amaieran herri bakoitzak duen egoeraren berri ematera mugatu da egitasmo hau. - 2014-2015 ikasturtea Andoain Irakasleak zuzenean kontratatzen ditu Udalak. Ez da enpresarik tartean. Lau ikastaro ezberdin eskaini dira. Bost irakasle izan dira guztira eta horietatik hiruk dakite euskaraz. Ikastaroen hizkuntza ez dago talde tipologiaren baitan. Euskarazko harremana nahi dutenei azalpenak euskaraz ematera mugatzen dira irakasleak, euskaraz dakiten kasuan. Ikasleen %60 da euskalduna. Hernani <i>Enpresa bat dago azpikontratatu zerbitzua emateko</i> Ikastaroen ekaintza: 10 ikastaro eskaini dira euskaraz, eta beste 11, ikasleen euskara mailaren arabera. Begiraleak: denak elebidunak. Talde tipologia: A tipologia 10 talde; B tipologia 9 talde; eta C tipologia: 2 talde. Helburuen betetze maila: %90	

ESPARRUA	PROGRAMA	EGINDAKOAREN EMAITZAK ETA EBALUAZIOA	KOMUNIKAZIO EKINTZA															
Udala		Lasarte Enpresa bat dago kontratatua zerbitzua emateko. Ikastaroen eskaintza: ez da euskarazko ikastarorik eskaini Begiraleak: bat izan ezik, gainerakoak elebidunak Talde tipologia: A tipologia: 3 talde; B tipologia: 4 talde eta C tipologia: 10 talde. Helburuen betetze maila: %94 Urnieta Ikastaro gehienak emateko enpresa bat dago kontratatuta baina jostuntza eta argazkilaritza digitala emateko begiraleak zuzenean kontratatu dira. Begirale guztiek dute gutxienez B-2 bat izan ezik. Bakar hori euskaldun zahar alfabetatu gabea da. 21 ikastaro eskaini dira eta horietatik euskaraz bakarra eskaini da. Taldeen tipologia: A:6; B: 13; C:1 eta E:1 Helburuen betetze maila: %100 - 2015-2016 ikasturtea Ikasturte hasierako egoera: Andoain: ez da jarraipenik egiten. Lasarte -Oria: ez ditu oraindik datuak eskuratu. Urnietako eta Hernaniko datuak: <table><tr><td></td><td>A mota</td><td>B mota</td><td>C mota</td><td>E mota</td></tr><tr><td>Urnieta</td><td>6</td><td>10</td><td>1</td><td>2</td></tr><tr><td>Hernani</td><td>10*</td><td>8</td><td>3</td><td>-</td></tr></table>		A mota	B mota	C mota	E mota	Urnieta	6	10	1	2	Hernani	10*	8	3	-	
	A mota	B mota	C mota	E mota														
Urnieta	6	10	1	2														
Hernani	10*	8	3	-														

ESPARRUA	PROGRAMA	EGINDAKOAREN EMAITZAK ETA EBALUAZIOA	KOMUNIKAZIO EKINTZA
Udala		* A motako taldeetan ikasle guztiek dakite edota ulertzen dute euskaraz. Euskaraz eskainitako taldeak A motako taldeetan kontabilizatzen dira, hasierako taldeen sailkapenari jarraituz. Urnietan eta Hernanin ikasturtean bitan jarraitzen dugu begiraleei erabilera datuak eskatzen eta baloratzen.	
	7. Kiroldegietako ikastaroak euskalduntzeko egitasmoa	Andoain, Lasarte-Oria eta Urnietako udalek hartu dute parte programa honetan. 102 talde izan dira guztira eta 1.434 ikasle (iaz baino 297 lagun gehiago), helduen taldeen % 88,6, hain zuzen. Aurreko urteetan bezalaxe, talde bakoitzeko ikasleen artean euskaraz dakitenen proportzioaren arabera erabakitzen da talde bakoitzaren tipologia zein den (A, B edo C) eta hizkuntzaren erabilerarako zein irizpide dagozkion talde bakoitzari. Bestetik, E motako ikastaroak ere eskaintzen dira (Andoainen izan ezik), hau da, taldearen tipologia kontuan izan gabe definizioz euskaraz eskaintzen direnak. Jarraipena azken urteotan bezala egin zaio talde bakoitzari, azaroan eta otsail-martxoan bildutako begiralearen datu aitortuen bidez. Hauek dira Ikastaroetako hizkuntza irizpideen betetze mailari buruzko datuak: • Lasarte-Orian, %86,6 (iaz, %95,4) • Urnietan, %100 (/iaz bezala) • Andoainen, %85,4 (iaz, %72,5) Euskaraz eskaini diren ikastaroak: • Lasarte-Orian, 3 (iaz baino bat gehiago). Urnietan, 2 (iaz bezala)	

ESPARRUA	PROGRAMA	EGINDAKOAREN EMAITZAK ETA EBALUAZIOA	KOMUNIKAZIO EKINTZA
Udala	8. Administrazio elektronikoa euskalduntzea	Hiru helburu nagusi finkatu genituen lan-ildo honetan: 1. Egitasmoa ezagutzeko informazio orokorra jaso. 2. Udal bakoitzaren egoeraren eta asmoen berri eman. 3. Aurrerantzean elkarrekin landu daitezkeen elementuak zehaztu. 1- Honen guztiaren oinarrian <i>Administrazio elektronikora igarotzea</i> proiektua dago, ekainaren 22ko 11/2007 Legeak arautua herritarrek Zerbitzu Publikoetara sarbide elektronikoa izan dezaten. IZFEren <i>Espedienteak</i> aplikazioa da horretarako tresna nagusia, eta bertan inplementatu behar dira (udal bakoitzak bere erritmoan) <i>Prozedura administratiboen eskuliburuan</i> jasoko prozedura guztiak. 2- Askotarikoa da Buruntzaldeko herrien egoera prozesu honetan, bai landuta dituzten prozeduren kopuruari dagokionez bai hizkuntza irizpideei dagokienez. Hizkuntza irizpideen arloan, Andoainen, Hernanin eta Urnietan, oro har, onartuta dituzten hizkuntza irizpideak aplikatzen dira prozesu honetan ere: Hernanin, lan-hizkuntza euskara da; Andoainen, aplikazioko dokumentu guztiak bietara dituzte; Urnietan, ez dute hizkuntza irizpiderik aplikatzen. Lasarte-Orian, berriz, hizkuntza irizpide adostuen txosten bat egiten dute prozedura bakoitzerako. 3- Aurrerantzean elkarrekin landu beharreko elementuetako bat <i>Herritarrentzako zerbitzu telematikoak</i> da. Garrantzi handiko gaia da, udalaren eta herritarren arteko harremanetan gero eta leku handiagoa hartuko dutelako harreman telematikoak.	

Udala	9. Subrogazio kasuetarako irizpideak eta protokoloa prestatzea	Administrazio kontratuak egiterakoan subrogazio eskubidea duten langileen hizkuntza gaitasuna (HG) egiaztatzeko irizpideak eta protokoloa bateratzeko hainbat neurri proposatu da, ohikoak diren zailtasunen aurrean Buruntzaldeko udalek berdin jokatzeko aldera: ▪ Subrogazio eskubidea duten langileen HG, eta ez gainerakoena, kontratua esleitu ondoren egiaztatzea. Alderdi honi dagokionez, Andoaingo Udalak egin beharko luke aldaketa, gaur egun hautaketa fasean egiten baita egiaztapen hori. ▪ Behar besteko HGrik ez duten langile subrogatuentzako euskalduntze-helburuaren neurriari dagokionez irizpide orokor bat aplikatzea (ikasturte bakoitzeko urrats bat gainditzea eskatuko zaie, helburua definituz Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumaren maila eta azpimailen arabera). Gai honetan bada bestelako ezberdintasunik ere Buruntzaldeko herrien artean. Nabarmenenak: ▪ Euskalduntze planaren premia edo izaera. ▪ HG egiaztatzetik salbuesteko langile subrogatuena adina. Ez dugu kontu horiek bateratzeko neurririk proposatu.	
	10. Kultura eta kirol ikastaroetarako erabiltzaileentzako galdetegia	Kultura eta kirol ikastaroetako erabiltzaileei hizkuntzaren erabilerari buruzko iritzia jakiteko inkesta bat prestatu da. Galdetegitik lortutako datuekin ikastaroetako hizkuntza erabilpenean eragin ahal izango da. Galdetegi hau herri bakoitzak erabilgarri izango du erabili nahi duenerako.	

Udala	11. Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren ezaugarriak aztertzea hizkuntza irizpideak egokiago definitzeko	Lehenik eta behin, etxez etxeko langileei zerbitzua emateko eskatzen zaien hizkuntza gaitasuna (2. hizkuntza gaitasuna ahozkoan) Europako Erreferentzia Markora egokitu dugu. Horretarako, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumak B-1 eta B-2 mailaren inguruan egiten duen definizioa aztertu dugu eta erabaki dugu, zerbitzuaren ezaugarriak kontuan izanik, B-2 ahozkoan dela etxez etxeko langileei eskatu beharreko maila. Erabiltzailearen eta etxez etxeko laguntzailearen harreman hizkuntzari dagokionez, datu-bilketa egin dugu jakiteko ea erabiltzaileei galdetzen zaien etxez etxeko laguntzaile euskalduna jartzea nahiko luketen. Urnietan bakarrik dute beren protokoloan galdera hori txertatuta (Langilea euskalduna BAI / EZ). Udal guztietako protokoloetan txertatzeko egokia izan daitekeen galdera adostu dugu: Etxez etxeko laguntzaile euskalduna nahiko zenuke? BAI / EZ. Horrez gain, Excel bat prestatu da zerbitzuaren erabiltzaileak langile euskalduna nahi duen eta langile euskalduna jarri zaion jasotzeko. Helburua da jakitea zerbitzua euskaraz jaso nahi duten herritarretatik zenbatek jasotzen duen zerbitzua berak hautatuko hizkuntzan, eta horrela ez bada, zein den arrazoia. <table><tr><th colspan="2">ERABILTZAILEA</th><th colspan="2">LANGILE EUSKALDUNA NAHI DU?</th><th colspan="2">LANGILEA EUSKALDUNA DA?</th><th>LANGILEA</th><th>OHARRAK</th></tr><tr><th>Izen-abizenak</th><th>NAN</th><th>BAI</th><th>EZ</th><th>BAI</th><th>EZ</th><td></td><td></td></tr></table> Taula hori etxez etxeko laguntza zerbitzua kudeatzen duen gizarte langilearen esku jarriko da, eta aldiro datuak bilduko ditugu, Buruntzaldean kontrastatzeko.	ERABILTZAILEA		LANGILE EUSKALDUNA NAHI DU?		LANGILEA EUSKALDUNA DA?		LANGILEA	OHARRAK	Izen-abizenak	NAN	BAI	EZ	BAI	EZ		
ERABILTZAILEA		LANGILE EUSKALDUNA NAHI DU?		LANGILEA EUSKALDUNA DA?		LANGILEA	OHARRAK											
Izen-abizenak	NAN	BAI	EZ	BAI	EZ													

Beste administrazioak	12. Errenta-aitorpenaren kanpainan eragitea	-2013ko errenta aitortzen egiteko garaian, Buruntzaldean zenbat herritarrek egin zuten euskaraz aztertu genuen. Oso poliki bada ere, gora doa - Kanpaina berria diseinatu eta abian jarri zen	- 2013ko kanpainan euskaraz egindako aitortzen kopuruaren datua bildu eta horren berri eman genuen webgunean. - Kartel, webgune eta prentsa oharren bidez burutu zen kanpaina errenta egiteko garaian. - Lehiaketa bat facebook eta webgunearen bidez, eta hiru lagunek baino ez zuten parte hartu.
	13. Osasun zentroetako hizkuntza egoera	- Hainbat kontaktu izan dugu Donostialdea ESIko euskara teknikaria den Ander Zuloagarekin, eta eskualde horretako egoera nahiz Osakidetzaaren egitura berria ezagutu ditugu. - Era berean, Osakidetza abian jarri dituzten edo jartzeko asmoa duten zenbait proiektuen berri eman digu. Horien artean euskara lehenesteko aukeraz eman digu informazioa eta guk aukera izan dugu osasun zentroetan egiaztatze oso erraza dela. Zalantzarik geratu zaigu gure herritarrei zuzenduriko euskara lehenesteko kanpaina abian jartzea ala ez. Anderrek gonbitea luzatu digu Donostiako Udala eta GFArekin batera duten lan-mahaian parte hartzeko	
	14. Bake Epaitegietako hizkuntza egoera	Ez da jaso Buruntzaldeko. Bake Epaitegietako langileen euskaraz mailari buruzko daturik eta ez euskaraz egin daitezkeen izapideen zerrendarik.	Ez da erreportajerik bideratu

Informazio eta komunikazio teknologiak (IKT)	15. Buruntzaldeko webgunea	Aurreikusitakoa bete egin dugu: 14-15 ikasturterako kontratuan jasotako garapena eta komunikazio ekintzak burutu ditugu, nagusiki, albisteak eguneratu, eta sare sozialak aktibatzeke neurriak hartu. Sare sozialetatik informazio asko zabaldu dugu.	Weba bera elikatzea
Informazio eta komunikazio teknologiak (IKT)	16. Motxian Eby lehiaketa	2014ko esketx lehiaketak izandako arrakasta ikusirik, aurtan ere, Oarsoaldeko udalekin batera antolatu dugu eta esketxena ez ezik, "stop motion" eta "Meme"ak ere aurkezteko aukera eman dugu, nerabeen artean urtez urte sortzen diren joeretara egokitzeko asmoz. Iazko partehartzea oso ona izanagatik (25), lehiaketaren arrakasta bideoek izandako ikustaldi kopuruan datza, dagoeneko 26.000 aldiz ikusi baitira. Aurtan berrikuntza gisa eta, ikusaldiak sustatze aldera, lehen sariduna internet bidezko bozka bidez aukeratuko da, bigarrena berriz, lan teknikoa eta gidoia edo testua baloratuko duen epaimahai batek aukeratuko du eta hirugarren saria herriko bozkatuenari emango zaio.	Buruntzaldeko webgunea Motxianebby webgunea Sare sozialak Gaztezulo-ren webean banerra Iazko partehartzaileei oharra Ikastetxe eta gaztelekuetara oinarriak eta oharra Oinarriak herri komunikabide eta herrietako kronikadun egunkarietara.
Enpresa mundua	17. Euskara Merkataritzara: autoeskolak	2014an 140 pertsonak lortu dute gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz ateratzea (2013an 135/ 2012an 112). Horien artean egin da aurtengo urtarrilean zozketa. 2015eko kanpaina ere egin da, urtero moduan, maiatzean (diptikoen banaketa, publizitateak...).	Zozketa Erreportajea Prentsaurrekoa Esku-orriak Kartelak Buruntzaldeko weba

Enpresa mundua	18. Lan-munduan eragitea	◆ 2015ean “Baietz Gurean” hitzarmena 6 enpresa berrik sinatu dute edo sinatzeko prest daude eta beste 4 ere sartzekoak dira baina neurketa egin gabe oraindik. Eta enpresa hauei, zein aurretik sinatuta zuten hainbati, jarraipena egin zaie, bereziki aholkularitza eskainiz, hartutako helburuak betetzen laguntzeko. ◆ 25 hornitzaile dugu programan sartuta eta jarraipena egin zaie. Eta hainbat ekintza zuzentzaile ere aurreikusi dira konpromisoa bete ez dutenentzat. Aurrera begira hornitzaileak detektatzeko eta jarraipena egiteko SAREKOren bidez egiteko modua aztertuko dugu. ◆ Lanbide Heziketari dagokionez Hitzaldiak La Sallen eta Usurbilen. Hernani eta Usurbilera ariketak bidali dira hausnarketa egiteko. Leitzaran eta Usurbil aukeratu dira interbentzio berria azaltzeko. Etxeberrian egin da interbentzioa eta gutuna ere bidali zaio zoriontzeko. Diru-laguntza ere eskatu eta jaso ere egin dute GFAn.	Sinatze ekitaldietako prentsaurrekoak Erreportajea Buletinak Berriak Buruntzaldeko weba
------------------------------	---------------------------------	--	--

HELBURU ESTRATEGIKOA: ELIKADURA

ESPARRUA	PROGRAMA	EGINDAKOAREN EMAITZAK ETA EBALUAZIOA	KOMUNIKAZIO EKINTZA
Kulturgintza	19. Euskarazko produktuen katalogoa	Aurreikusitakoa bete dugu. 2015-16ko katalogoa martxan da eta aldaketa dexente txertatu ditugu: paperezko bertsioa 12 urtera mugatu dugu (DBHkoen artean ez zuen tiradizorik) eta gaztetxoentzako beste produktu bat sortu dugu: orri bereizgarria. Webaren diseinuari astindu handia eman diogu (responsive formatura egokitu, gazteentzako bigarren azala, sarbidea, gehitu, etab...)	Bannerrak, bideoa, faldoia eta prentsa-oharra
	20. Ahozketasuna sustatzeko programa	Egitasmoa aurreikusitako moduan garatu da. Jarraipen batzordearen bilera egin da martxoaren 9an Lasarte-Oriako Berritzegunean. Programaren barruan dauden ikastetxeek balorazio-galdetegi bat erantzun dute. Oso balorazio positiboa egin zuten ikastetxe guztiek, eta irakasleen lanaren bikaintasuna azpimarratu dute beste behin. Ikasturte amaieran jaialdiak egin dira maiatzaren 4tik ekainaren 1era bitartean, 8 guztira. 2015-2016 ikasturterako "Gu ere bertsotan" programa zehazteko helburuarekin, martxo-apirilean jaso da eskola bakoitzaren eskaeren berri, eta maiatzean zehar udal bakoitzak eman dio Bertsozale Elkarteari bere erabakiaren berri. Udal bakoitzak jaso du bere aurrekontua, ordainketa sistema aurreko ikasturteko bera izango delarik.	
Corpus plangintza	21. Apelliduak abizendu	Ez da jaso 2015ean Buruntzaldean abizenak euskaraz zenbat lagunek jarri duten. Bestalde, eskuorririk ez da argitaratu.	Ez da egin.
Besterik	22. Komunikazioa	Egitasmo bakoitzaren barnean jaso da zer komunikazio ekintza egin den. Hernanik izan du ardura .	

ESPARRUA	PROGRAMA	EGINDAKOAREN EMAITZAK ETA EBALUAZIOA	KOMUNIKAZIO EKINTZA
	23.Ardura politikoa	Hernani izan da aurten ardura politikoa izan duena. Urtean zehar izan diren beharrei erantzun die ta memoria eta plana osatzeko koordinazio lanak egin ditu.	